

13. Udako ingurumen-zinema zikloa parkean

edizioa uztailaren 3an abiatuko da, eta doako hiru proiektzio eskainiko ditu Egiako parkean

Cristina Enea Fundazioaren aire zabaleko zinema zikloaren 13. edizioa bere hastapenetara itzuliko da, eta proiektzio guztiak Cristina Enea parkean egingo dira. Eta horren arrazoia da gune hau herritarrei ireki zitzaieneko lehen mendeurrena ospatzeko, Mandasko dukeen nahiak betetz. Hala, aurten, ingurumen-gaiekin lotura izateaz gain, proiektatuko diren filmek keinu bat egingo diete 1926. urteari edo parkeei, ingurumen-aberastasun handia duten espazio gisa.

Ziklo honek hamahirugarren edizioa du jada, eta udako hilabeteetan herritarrek gehien baloratzen dituzten kultura-jardueretako bat bihurtu da, bai edukiagatik, bai formatu irisgarri, doako eta familiarragatik. Proiektzioak Cristina Enean izango dira, beti 22:30ean, eta sarrera librea izango da lekua bete arte.

Testuinguru horretan, Donostiako Udaleko Ingurumen zinegotzi Iñigo Garciak azpimarratu duenez, «ziklo hau hiriko kultura ulertzeko modu oso berezi bat da: aire zabalean, naturarekin harremanetan eta gure nortasun kolektiboaren parte den espazio batean. Cristina Enea parkea berreskuratzeak indartu egiten du ondare naturalaren, hiri-bizitzaren eta bizikidetzaren arteko lotura».

Aire zabaleko zine-zikloaren lehen edizioak Cristina Enea parkean egin ondoren, zikloak bere ekintza-eremua zabalduta izan du, eta kultura auzo guztietara hurbiltzearen aldeko apustua egin du hainbat ediziotan. Horrela, bost urtez jarraian, kultur zirkuitu handien parte izan ohi ez diren baina publiko leial eta sutua duten guneetan ere egin dira proiektzioak, hala nola Araba (Amara), Harria (Altza) edo Salvador Allende (Bidebieta) parkeetan. Aurten, ordea, Cristina Enea parkea izango da protagonista bakarra.

Aurtengo programazioak gustu eta adin guztietarako izenburuak biltzen ditu: El maquinista de la general kultuzko klasikotik hasi eta Belle Époque oscar duneraino, Cariño, he encogido a los niños komedia familiarretik pasatuz. Horrela, film bakoitza modu berezi batean egongo da edo naturari, edo 1926. urteari, edo parkeei.

Zinegotziaren hitzetan, «honelako proposamenek erakusten dute ingurumen-kulturak ez duela zertan akademikoa edo urruna izan; hurbilekoa, partekatua eta erabat integratzailea izan daiteke. Udako zinema hau hiria beste era batera bizitzeko gonbidapena da, ingurunea zainduz eta guztionak diren espazioetan lotura komunitarioak indartuz».

Pelikulen datak, kokapenak eta sinopsia

Prensa oharra

Nota de prensa

Jarraian, 2026ko aire zabaleko ingurumen-zinemaren zikloaren barruan proiektatuko diren filmen datak zehazten dira:

- Izenburua: Cariño, he encogido a los niños (Joe Johnston, 1989)
- Eguna, ordua eta lekua: Ekainak 3, ostirala, 22:30ean, Cristina Enea parkea (Egia)
- Sinopsia: Wayne Szalinski objektuen tamaina txikitzeko makina garatzen duen zientzialari eta asmatzailea da. Beisboleko pilota batek halaberrez aktibatzen du makina bere seme-alaben gainean, eta benetako abentura biziko dute lorategiko soropila etxeraino zeharkatu nahian, orain haientzat benetako "oihan" bihurtua.

- Izenburua: El maquinista de la general (Buster Keaton, Clyde Bruckman, 1926)
- Eguna, ordua eta lekua: uztailaren 10ean, ostirala, 22:30ean, Cristina Enea parkean (Egia)
- Sinopsia: Johnny Gray (Buster Keaton) makinista da AEBetako Hegoaldeko estatu batean, eta bi maitasun handi ditu: neska bat (Anabelle Lee) eta tren-makina bat (La General). 1861ean, Sezesio Gerra hasi zenean, Johnny izena ematen saiatu zen, baina armadak uste zuen baliagarriagoa izango zela atzeragoardian lan egitea. Anabellek, ordea, koldarra dela uste du, eta baztertu egiten du. Makinistak bere benetako balioa frogatu ahal izango du lerro konfederatuetan infiltratutako iparraldeko komando batek "La General" lapurtu eta Anabelle bahitzen duenean. Johnnyk ez du zalantzarik izango une batez beste tren-makina batera igo eta yankien atzetik joateko bere bi maiteak berreskuratzeko.

- Izenburua: Belle Époque (Fernando Trueba, 1992)
- Eguna, ordua eta lekua: uztailaren 17an, ostirala, 22:30ean, Cristina Enea parkean (Egia)
- Sinopsia: 1931ko negua. Fernandok armadatik ihes egitea erabakiko du eta landetxe batean babestuko da. Bertan, Manolo margolari xelebreak harrera ona egingo dio, bere ideia politikoen ondorioz erretiratuta bizi baita. Mutilak harremanak ditu bere babeslearen lau alabekin (Rocio, Violeta, Clara eta Luz), eta ez daki oso ondo zeinekin dagoen maiteminduta.